

EHUren GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA

EHUN ETA HOGETA HAMARGARREN SESIOA BI MILA ETA ZORTZIKO URRIAREN 22AN OSPATUTAKOA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN
GEHIGARRIZKO ORDAINSARI-OSAGARRIAK ESLEIPENA.

"IKUSIZ:

- 55. art. 1 azpiataletik eta 2. eta 4. atalak, Unibertsitateetako, abenduaren 21eko, 6/2001 Lege Organikoarenak.
- 34. art. 1 eta 2 azpiatalak, Unibertsitate Euskal Sistemako, otsailaren 25eko, 3/2004 Legearen.
- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Irakaskuntza eta Ikerkuntza Pertsonalaren Ordainketa-osakin Gehigarriei buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretua .
- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Irakaskuntza eta Ikerkuntza Pertsonalaren Ordainketa-osakin Gehigarrien Ebaluaketa eta Esleipenarendako Protokoloari publizitatea ematen dion Unigualeko zuzendariaren 2006ko abenduaren 22ko data duen ebazpena.
- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Irakaskuntza eta Ikerkuntza Pertsonalaren ordainketa-osakin gehigarrien esleipena eta merituen ebaluaketa eskatzeko deialdia onartu eta argitaratzeko erabaki zen 2007ko urtarrilaren 26ko UPV/EHU-ko Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkuraren erabakia.

KONTUAN HARTUZ:

- Unigual Zuzendariaren ebazpenak, bide ematen dituztenak UPV/EHUko Irakaskuntza eta Ikerkuntza Pertsonalak alegatutako merituen banakako ebaluaketa egiteko.
- 2008-10-15 data duen Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren hitzarmena.
- UPV/EHUko IIP-ren ordainketa-osakinen finantziatorako diru-izendapenari buruzko EHU/UPVko Barne Kontrolerako Zerbitzu Buruaren idazkia, 2008ko apirilaren 23ko data duena.
- UPV/EHUko IIP-ren ordainketa-osakinen finantziatorako diru-izendapenari buruzko 2008ko apirilaren 8ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren Administrazio eta Gestio Ekonomiko Zuzendariaren egiaztagiria.

Gizarte Kontseiluak erabakitzen du

Lehenengo.- Esleitzea, banaka eta modu berezitan, 1 Eranskineko zerrendan dagoen UPV/EHU Irakaskuntza eta Ikerkuntza Pertsonalaren aldeko ordainketa-osakin gehigarriak, aipatutako legezko eta arauzko araudia eta bestelako aplikazio bidezko eta egokia jarraituz eta betez.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

Bigarrenengo.- 2. Eranskinean agertzen den Irakaskuntza eta Ikerkuntza arloko Langileei berriz esleitzea, izaera berezian eta banaka, gehigarritzko ordainketa osagarriak eta bi mila zortziko apirilaren hogeita bederatziaeren akordioan adierazitako esleipena baliorik gabe uztea, osatu bate egoteagatik.

Hirugarrenengo.- Urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren 12. artikuluan jasotakoa betez, Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco-ri hitzarmen honen egiaztagiria igortzea, azken horrek aldi berean egiaztagiri hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari igorri diezaion, onuradunen banakako zerrenda eta esleitutako osakinen guztizko kostuaren justifikazioko memoriarekin batera, azken horretan eurei lotutako lan kostuak barne direlarik. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailera ziurtagiria eta bestelako dokumentazioa bidali dela hilabete bateko epean egiaztatu beharko da, hitzarmen hau onartu den egunetik kontatuta.

Lauugarrenengo.- Akordio hau interesatu bakoitzari jakinaraztea ordainketa-osakinen deialdian, dagokion atalean, pertsonalki egokitzen zaizkion egoerak zehaztuz eta aintzakotzat hartuz.

NANa	1. Abizena	2. Abizena	Izena	Puntuazioa

A2 Data	A1 Data	B3 Data	B2 Data	B1 Data	C2 Data	C1 Data

2005 Zenbatekoa	2006 Zenbatekoa	2007 Zenbatekoa

Helegiteen instrukzioa. Administrazio Publikoetako Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Orokorraren azaroko 26ko 30/1992 Legearen 89-3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, jakinarazten da hitzarmen honek bide administratiboa agortzen duela (urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren 9-1 artikulua) eta bere aurka aurkeztu daitezkeela:

a).- Birjarpen aukerako errekur-tsoa, hitzarmen honen notifikazioaren hurrengo egunetik kontatuta hilabete bateko epean, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitate -ko Gizarte Kontseiluaren aurrean aurkeztuko den idazkiaren bitartez.

b).- Administrazio auzi errekur-tsoa, hitzarmen honen notifikazioaren hurrengo egunetik kontatuta hilabete biko epean, Bilboko Administrazio auzi Epaitegiaren aurrean aurkeztuko dena.”.